



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

# Konpetentzia Digitalak

## Graduko ikasleentzako formakuntza materialak

## 2. Komunikazioa eta lankidetza

### 2.3. Teknologia digitalen bidezko lankidetza:

#### **2.3.3. Dropbox, lankidetza tresna moduan**

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala



Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

Komunikazioa eta  
lankidetza.  
Teknologia digitalen  
bidezko lankidetza

# **DROPBOX**

## **LANKIDETZA TRESNA MODUAN**




**CRUE**

**REBIUN**

Red de Bibliotecas Universitarias

# HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



## LABURPENA

- Funtzioak
- Sarbidea
- Edukia Gehitu
- Dokumentuak sortu
- Dokumentuak antolatu
- Lankidetzak
  - Dokumentuak partekatu
  - Dokumentuak editatu
  - Microsoft Office Online
  - Dropbox Paper
  - Atzeraelikadura eman eta jasotzea
  - Aldaketen eta bertsioen kontrola

# FUNTZIOAK

Dropbox hodeian oinarritzen den fitxategiak gordetzeko zerbitzua da (cloud computing).

Hauek dira funtzionalitate nagusiak:

- Fitxategiak biltegitratzea eta sinkronizatzea
- Dokumentuak linean sortzea
- Karpetak eta dokumentuak partekatzea
- Linean lankidetzan editatzea

LANKIDETZA



## Dropbox

Nombre ↑



3º



4º



TFG



Práctica 2.docx

# SARBIDEA

Kontu bat izan behar da Dropbox-era sartu ahal izateko.

Iniciar sesión

[o crear una cuenta](#)



Iniciar sesión con Google

o

Correo electrónico

Contraseña

This page is protected by reCAPTCHA, and subject to the Google [Privacy Policy](#) and [Terms of service](#).

Recordarme

Iniciar sesión

[¿Has olvidado tu contraseña?](#)

Honako hauetatik sartu eta sinkroniza daitezke fitxategiak:



Web-plataforma




Mahaigaineko aplikazioa



Gailu mugikorrak


# EDUKIA GEHITU

Fitxategiak edo karpetak web-zerbitzuaren bidez igo daitezke, *Igo* botoia erabiliz.



Igotako edo sinkronizatutako fitxategiak *Nire fitxategiak* atalean egongo dira.

Fitxategiak idazmahaitik arrastatu eta askatzeko (*drag and drop*) aukera ere erabil daiteke edota aplikazioan sinkronizatu.




# DOKUMENTUAK SORTU

Dropbox Paper funtzionalitateak on line lankidetzarako pentsatutako lan-eremu bat eskaintzen du, non hainbat aplikaziotatik testua, zereginen zerrendak, kodea edo irudiak, audioa eta bideoa gehitu daitezkeen.

Dropbox-en fitxategi berriak sortzeko badira bi modu:





**A**

**Fitxategiak atalean Microsoft Office-ko dokumentuak sor ditzakezu:**



**B**

**Bereziki lankidetzara bideratutako dokumentu berri bat sortu, Paper ataletik edo <http://paper.dropbox.com> URLtik**


Aplikazioa	Izena	Dokumentu mota
	Microsoft Word	Testu-dokumentuak
	Microsoft Excel	Kalkulu-orriak
	Microsoft PowerPoint	Diapositiben aurkezpenak
	Dropbox Paper	Lankidetzarako bereziki diseinatutako dokumentuak



# EDUKIAK ANTOLATU

Dokumentuak karpetak sortuz edo igoz antola daitezke. Ondoren, zure unitateko *Fitxategiak* atalean aurkituko dituzu, eta horien barruan fitxategiak eta azpikarpetak gehitu ahalko dituzu:


## 1 Antolaketa modua aukeratu



## 2 Karpetak sortu

Dropbox


Nombre ↑



## 3 Gehitu fitxategiak eta azpikarpetak karpeta berrietan

Dropbox > 3º



Nombre ↑



# LANKIDETZA: DOKUMENTUAK PARTEKATU

Dropbox-en gordetako dokumentu nahiz karpetak parteka daitezke, beste batzuek ikusi, iruzkindu edo editatu ditzaten:

**1** Aukeratu zer fitxategi edo karpeta partekatu:

Nombre ↑	Última modificación ▾	Miembros ▾
 TFG	--	Solo tú
 <a href="#">Práctica 2.docx</a> ☆	31/7/2018 a las 09:44	Solo tú <a href="#">Compartir</a>

**2** Aukeratu nola partekatu

**Para:**

### Partekatu

Fitxategia, Dropbox-en kontua duten pertsonekin partekatzeko aukera ematen du.



### Sortu esteka

Fitxategia posta elektronikoaren edo berehalako mezularitzaren bidez partekatzeko esteka bat ematen du, hartzaileak Dropbox-en konturik izan beharrik gabe. Kasu horretan, hartzaileak dokumentua ikusi ahal izango du, baina ez editatu eta ezta iruzkindu ere.

Dokumentuak *Hasiera* eta *Artxiboak* ataletatik partekatu daitezke.

# LANKIDETZA: DOKUMENTUAK PARTEKATU

Dropbox-en dauden dokumentuak eta karpetak partekatu daitezke, beste batzuek ikusi, iruzkindu edo editatu ditzaten.

## 3 Aukeratu norekin partekatu

The screenshot shows the sharing interface for a file named "Práctica 2.docx" with 1 member. A red box highlights the "Para:" field where two email addresses, "esther@universidad.es" and "carlos@universidad.es", have been entered. To the right of the email list is a button labeled "Acceso de lectura". Below the email list is a text input field with the placeholder "Añadir un mensaje (opcional)". At the bottom left is a gear icon for "Configuración de archivos" and at the bottom right is a blue "Compartir" button.

## 4 Sartzeko baimenak eman

The screenshot shows the "Para:" field with the same two email addresses. To the right is a dropdown menu labeled "Acceso de edición". A red box highlights the permissions list, which includes "Acceso de edición" (checked) with the description "Los usuarios pueden editar, eliminar, comentar y añadir el archivo a su Dropbox" and "Acceso de lectura" with the description "Los usuarios pueden ver, descargar y comentar".

Ediziorako baimena, dokumentu-karpetak partekatzeko bakarrik balio du. Banakako fitxategiak irakurtzeko baimenarekin bakarrik parteka daitezke.

# LANKIDETZA: DOKUMENTUAK EDITATU

Lankidetzazko edizioa gutxienez dokumentu bat duen karpeta bat partekatzen den unetik egin daiteke.

Dokumentu bat irekitzean, bistaratze-pantaila irekitzen da. Hemendik, Dropbox-ek bi tresna independenteren bidez sartzeko aukera ematen du: **Microsoft Office Online** eta **Dropbox Paper**.

Microsoft Office Online, itxura klasikodun dokumentuak lankidetzan editatzeko gomendatzen da. Dropbox Paper aldiz, oso bisualak diren dokumentuak egiteko erabiltzen da, irudiak eta multimedia-edukiak nagusi direnean.

Bi tresnek dokumentuak modu asinkronoan nahiz aldi berean editatzeko aukera ematen dute.

< Práctica 2.docx ★  
Última modificación el Septiembre 7



Compartir

Abrir ▾

◆ Copiar en Paper

Microsoft Word Online

## 5.1 Definición

Tor (The Onion Router) es un software libre de encaminamiento de tráfico llamado onion routing que tiene como fin hacer anónimas las comunicaciones en Internet contra la censura y el control. Fue diseñado originalmente como un proyecto del Laboratorio de Investigación Naval de los Estados Unidos.

Tor proporciona un túnel de comunicación anónimo diseñado para resistir a ataques de análisis de tráfico (traffic analysis). Por esta razón, Tor hace que sea posible que podamos realizar una conexión a un equipo sin que éste o ningún otro equipo sea ca

## 5.2 Funcionamiento

La red se compone de una serie de nodos que se comunican entre sí mediante el protocolo TLS sobre TCP/IP lo que le hace mantener la información de una forma secreta e íntegra desde un nodo a otro. Se pueden diferenciar dos tipos de entidades:

- Nodos TOR

# LANKIDETZA: MICROSOFT OFFICE ONLINE-EN EDITATZEA

Dokumentuak Microsoft Office Online-rekin editatzean, Dropbox-en fitxategietarako sarbidea eman behar duzu:

Microsoft Office Online desea acceso a los archivos y carpetas de tu Dropbox. [Más información](#)

Cancelar

Permitir

Aldi bereko edizioaren kasuan, edizio aplikazioak denbora errealean hainbat koloretako kurtsoreekin erakutsiko du zer ari diren editatzen zure lankideak.

Egindako aldaketak automatikoki gordetzen dira.

Word Online | Guardar y volver a Dropbox | Prácticas | Práctica 2 - Guardado en Dropbox

ARCHIVO INICIO INSERTAR DISEÑO DE PÁGINA REVISAR VISTA Otras 2 personas están aquí Compartir Comentarios

Desahcer Portapapeles Fuente Párrafo Estilos Edición

## 5.1 Definición

Tor (The Onion Router) es un software libre de encaminamiento de tráfico llamado onion routing que tiene como fin hacer anónimas las comunicaciones en Internet contra la censura y el control. Fue diseñado originalmente como un proyecto del Laboratorio de Investigación Naval de los Estados Unidos Esther A.

Tor proporciona un túnel de comunicación anónimo diseñado para resistir a ataques de análisis de tráfico (traffic analysis). Por esta razón, Tor hace que sea posible que podamos realizar una conexión a un equipo sin que éste o ningún otro equipo sea capaz Mario G.

## 5.2 Funcionamiento

La red se compone de una serie de nodos que se comunican entre sí mediante el protocolo TLS sobre TCP/IP lo que le hace mantener la información de una forma secreta e íntegra desde un nodo a otro. Se pueden diferenciar dos tipos de entidades:

- Nodos TOR

# LANKIDETZA : DROPBOX PAPER

Dropbox Paper-ek lineako lankidetzarako pentsatutako lan-eremu bat eskaintzen du. Bertan testua, zereginen zerrendak, kodea gehitu edo irudiak, audioa nahiz bideoa txertatu ditzakezu aplikazio desberdinetatik.

 Dropbox Paper



Dokumentu bat Paper-en kopiatzen denean, independentea den beste dokumentu bat sortzen da. Horregatik, zure lantaldeko kideei berriro edizio-baimenak ematea beharrezkoa izango da.

Para:

puede editar ▾

Aldi bereko edizioaren kasuan, edizio aplikazioak denbora errealean hainbat koloretako kurtsoreekin erakutsiko du zer ari diren editatzen zure lankideak.

Egindako aldaketak automatikoki gordetzen dira.

Práctica 3  
Añadir a carpeta • Compartido con Mario EA MG Invitar   ...  

## Práctica 3

- @Mario G Dar formato a los epígrafes El próximo martes MG
- Completar punto 2.1 Ayer
- Añadir video Ayer

### 2.1 CONCEPTO

El video-trailer es un video anuncio para un libro, el cual emplea técnicas similares a las de los trailers de películas con el objetivo de persuadir y tentar a los lectores.

Esther A.

También se les conoce como “video-podcasts”










Mario G.

### 2.2 EJEMPLO



# LANKIDETZA: ATZERAELIKADURA

Dropbox-en, zure lankideekin komunikazioa hiru funtzionalitate desberdin eta independentetan egin daiteke: fitxategiak bistaratzeko pantaila, Microsoft Office Online eta Paper.

Erabilgarritasuna	Ekintza	Komunikazioa	Deskribapena	Ikuspegia
Fitxategiak bistaratzeko pantaila  	Komentatu	Asinkronoa	<i>Iruzkinak</i> atala eskuineko aldean dagoen sinboloa sakatzean agertzen da.  Iruzkinak dokumentu osoari buruzkoak izan daitezke, baita zati edo paragrafo jakin bati buruzkoak ere, beti aurretik hautatuak izan direlarik. Gainera, lankideetarikoa bat aipa daiteke; honek aipuaren jakinarazpen bat jasoko du.	 Esther A. Necesito que añadas la definición  Ok, te aviso cuando la complete
Microsoft Office Online  	Komentatu	Asinkronoa	Hitzak edo paragrafoak hautatuz, edozein kolaboratzailek erantzun edo ebatz ditzakeen iruzkinak gehi ditzakezu.	Esther A. Debemos desarrollar todas las siglas  Mario G. Me encargo ;)
Paper  	Komentatu	Asinkronoa	Hitzak edo paragrafoak hautatuz, edozein laguntzailek erantzun edo ebatzi ditzakeen iruzkinak gehitu ditzakezu. Zure laguntzaileetako bat aipatzeko, @ ikurra erabili, eta jakinarazpen bat jasoko du. Iruzkinetan paperezko beste dokumentu batzuk ere erantsi daitezke, + ikurraren bidez.	 Hay que unificar el tipo de letra  


# LANKIDETZA: ALDAKETEN KONTROLA

Dokumentu baten edizioan aldaketak egiten direnean, Dropboxek automatikoki gordetzen ditu aldaketak.

Última modificación ▾

Ayer a las 17:11  
por Esther A.

**Fitxategiak** atalean, aldaketa noiz gertatu den eta zein laguntzailek egin duen azaltzen da.

Pantailaren eskuinaldean, fitxategia  bistaratzeko sinboloa sakatuta, **Jarduera** atala agertuko da. Bertan, dokumentua sortu zenetik egindako aldaketa guztiak agertuko dira, noiz eta nork egin duen azaltzen duen informazioarekin.



Comentarios Actividad

- MG** Mario G. ha editado este archivo hace 1 h
- EA** Esther A. ha editado este archivo hace 23 h
- MG** Mario G. ha editado este archivo Ayer


Artxiboak ataletik zein bistaratzeko-pantailatik, dokumentu baten **bertsioen historialera** sar gaitzke.

Descargar

Historial de versiones

Hemendik dokumentuaren aurreko bertsioak berreskura daitezke.

Era berean, *Paper*-en **dokumentuaren historialera** sar zaitezke, eta bertatik dokumentuaren aldaketa bakoitza bistaratu eta bertsio zehatz batera itzul dezakezu dokumentua.



2 cambios desde hace 2 horas

Cambios del documento Historial de comentarios Recuento de palabras

14 de septiembre de 2018 19:20  
Editado por Mario G. y Esther A.

También se les conoce conocido como "video-podcasts".

Revertir cambios a esta versión



# GEHIAGO JAKITEKO...

Begiratu [Dropbox-en laguntza-zentroa](#) atala.



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center**

**Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101  
20009, Donostia, Gipuzkoa.  
T. 943574514  
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea**

**Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2  
20560, Oñati, Gipuzkoa.  
T. 943718009  
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**

**Biblioteka**

Dorleta, z/g.  
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.  
T. 943714157  
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa**

**Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.  
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.  
T. 943794700  
biblioteca.mgep@mondragon.edu